

# noaua

Parte hartze  
prozesua, bide onetik

Gure Esku Dago:  
"Lanerako garaia da"

Larunbat honetan,  
Trainerila Txapelketa  
Aginagako uretan



**Kilometroak 2015 jaiaren lekukoa,  
Usurbil eta Udarregi ikastolaren esku**



[www.usurbilorainadageroa.com](http://www.usurbilorainadageroa.com)

Hiria Antolatzeko  
Plan Orokorren  
Parte-hartze prozesua

urriak  
**13**

19:00etan



JARDUERA EKONOMIKOAK, KOMERTZIOA  
ETA NEKAZARITZA (Potxoenea)

urriak  
**15**

19:00etan



EKIPAMENDUAK, ZERBITZUAK  
ETA AZPIEGITURAK (Potxoenea)

urriak  
**16**

19:00etan



LURRALDE ANTOLAKETA (Potxoenea)

Etorkizuneko Usurbil marraztera goaz  
**ZATOZ ETA PARTE HARTU**



**FUNERARIA  
GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

·EDOZEIN ASEGURU IZANDA  
(OCASO, SANTALUCIA...)

**HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

**ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ  
ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,**

(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA  
EDO ERREZIBOIA EDO HORRELAKORIK EZ DUGU BEHAR,  
ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)

**943 36 21 63 (24H)**

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK  
·Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo  
beilatokia DOAN (gure eskutik)

[info@funerariagonzalez.es](mailto:info@funerariagonzalez.es) [www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)

# LASER DIODO IRAUNKORRA LIGHTSHEER® DIODO LASERRAREKIN

KIROLARIA BAZERA... depilazio iraunkorra  
lortzeko aukera paregabea eskaintzen dizugu:

## EMAKUMEETAN:

Hanka osoak 153€ sesioa

Hanka erdiak 102€ sesioa

Besoak 99€ sesioa

Besurreak 99€ sesioa

Ingleak (bikini) + besapeak 92€ sesioa

Ingleak (Pubisa edo Brasildarra) + besapeak 102€ sesioa

Kokotsa + ezpaina 40€ sesioa

## GIZONETAN:

Sorbaldak 99€ sesioa

Sabelaldea + toraxa 153€ sesioa

Hanka osoak 194€ sesioa

Hanka erdiak 122€ sesioa

Besoak 143€ sesioa

Besurreak 122€ sesioa

Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu

**INTZA**  
ILEA PAINDU EGIA  
ESTETIKA ZENTROA

## Albiste iruditan

# Beteranoak, baina sasoiko

**G**ure Pakea Elkartetik helarazi diguten ondoko irudian duzue, Usurbilgo beterano taldea, sasoi ederrean. Denek 80 urte bete dituzte aurten. Urtero moduan, urriko lehen igandean omendu zituen Gure Pakea Elkar-teak, meza ostean, senide eta lagunekin Atxega jatetxean ospatu zuten bazkarian. Oroigarri eta guzti duzue, mundu honetan zortzi hamarkada daramatzen lagun koadrila. Zorionak denei! Segi dezatela horrela!

### Gabonetako loteria

Gurea Pakea Elkartetik jakinarazia duten oharra; datozen eguberrietako loteria salgai dute, elkarteak Artzabalen duen bulegoan.



Atxega jauregian jaso zuten oroigarri bana.

## Laburrean

### 1973koen kinto bazkaria

Urriaren 25ean, larunbata, Atxega jauregian. "Hamaiketakoa, bazkaria, eta etortzen dena" izango da. Izena emateko azken eguna: urriak 17. otar-goxo@hotmail.com helbidera/ 678 943 674

### 1955ekoen kinto afaria

Urriaren 18an Antxeta jatetxean. Izen emateko epea zabalik, urriaren 15era arte. Apuntatzeko deitu telefono zenbaki honetara: 675 717 020 (Miguel Angel).

### Aisialdirako dirulaguntzak

Udalak diru-laguntzak banatuko ditu, haur eta gazteen aisialdirako begirale edo zuzendari ikastaroa egiten duten ikasleen artean. Informazio gehiago Potxoenean.

# noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaua.com // www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

#### Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

#### Publizitatea:

Arantxa Zulaika,

publizitatea@noaua.com

#### Diseinu berria:

Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

#### Banaketa:

Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

#### Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Arana-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udalak



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aritz Gorriti

## Eskuetan

**B**i urtean behin Euskal Herria alderik alde zehar-katzen duen lasterketa ezaguneko une hunkigarrienez oroitu nintzen. Korrikako lekukoa esku batetik bestera pasatzen den uneaz. Lekuko uzte eta hartze uneak irudikatzen duenaz. Duen garrantzia. Irudikatzen duen aldaketa; batzuentzat eginiko saiakeraren amaiera, erronka berri bati heltzea besteentzat. Etenik gabeko transmisioa. Herri bat, euskararen alde. Eta lekuko hartzeetan sentitzen den emozioaz, alaitasunaz, aurpegietan marrazten den irribarreaz. Halako unerentz bizi izan dutenek berehalakoan ahaztuko ez dutena.

Une horiez oroitu nintzen,

aurreko igandean Orioko Kilometroak jaialdian, Usurbilek eta Udarregi Ikastolak datorren urteko ikastolen aldeko jaialdia antolatzeko lekukoa hartzen ari zirenean. Oriotik eskuz esku pasa zuten lekukoa Usurbilek du jada. Erronka berriari ilusio handiz heldu zioten udaleko eta ikastolako ordezkariak. "Abiatzera goaz, herria txikota!" zioen Udarregiko lehendakariak. Abiatu gara. 2015eko urriaren 4rako atzera kontua hasi da.

Lehenengo aurkezpen saioak asteburu honetan izango dira. Orion hartutako lekukoa herriari eskainiko zaio urriaren 17an. Eta hortik aurrera, ikasturte honetan zehar Kilometroak izango dugu Usurbileko hitzorduen agendan. Lehen lerroan gainera; bilerak,

ekimenak, deialdiak ugariak izango baitira hurrengo hilabete hauetan. Antolakuntzak, osatu diren lan taldeetan parte hartzerantz animatzen ditu usurbildarrak. Kilometroak 2015 egunean bakarrik ez, aurretik ere zeregina izango baita.

Datorrena ikasturte aproposa izan liteke, Udarregi Ikastolari merezitako laguntza emateaz gain, baita, zergatik ez, azken aldia euskararen inguruan egin diren hainbat azterketen emaitzak, latsagorritu beharko liguketen emaitzak aldatzen laguntzeko; horretan ere, gure "aletxo" jartzeko. Euskararen ezagutza nabarmen hazi den honetan, gehiengo oso batek gure hizkuntza menderatzen duen

honetan, euskara ezagutzetik ahotan hartzerantz heltzeko oraindik bide zati bat jorratzea gertatzen zaigula dirudi. Jakin bai, ezagutu bai, baina ez dugula euskara etxean, lantokian edo kalean hainbestetan erabiltzen. "Kilometroak urte" hau, urte ezin hobea izan liteke, ezagutza praktikara gehiagotan eramateko. Dakigunona baita noski, euskara bizirik mantentzearen ardura, ez dakitenek ez dute, gure hizkuntza zaindu, bizirik mantendu eta hurrengo belaunaldiei transmititzeko ardura hartuko. Usurbil kanpora begirako erakusleho izango den hurrengo hilabete hauen aurretik, erakusleho geronen burua begiratzeko ispilu ederra izan liteke zertan ari garen aztertzeko.

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Idoia Torregerai | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas

## Kutxaren izaera publiko eta sozialaren defentsan

**G**ipuzkoako Kutxaren izaera publiko eta soziala bermatzearen alde agertu zen udalbatza, irailaren 30ean egin zen osoko ohiko bilkuran. Gai honen inguruan EH Bilduk aurkezturiko mozioa onartu zen gehiengo osoz. Koalizioak soilik babestu zuen ordea testua. EAJ-PNV, Hamaibakat eta PSE-EE aurka agertu ziren.

Lau puntuko mozioak honela dio:

1-Usurbilgo Udalak herritarren, familien eta bertako ekonomiarren mesedetan arituko den Kutxabanken finantza-il-



EH Bilduren mozioak ez zuen oposizioaren babesa jaso (argazkia, artxibokoa).

do eraberritu bat aldarrikatu nahi du.

2-Usurbilgo Udalak Kutxaren (Gipuzkoan) eta Kutxa-

banken izaera publiko eta soziala bermatzeko beharrezkoak diren neurri eta erabakiak hartzeko boronda-

tea eta prestutasun irmoa du.

3-Norabide horretan, Usurbilgo Udalak Kutxako (Gipuzkoan) batzarrari eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatu duen eskualdatze-prozesu hori martxan jar dezala, Gipuzkoako Kutxa banku-fundazioa bihurtu ez dadin eta herritarren eta bertako instituzioen izaera publiko eta soziala bermatzen jarraitu ahal izateko.

4-Honako mozioa Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gipuzkoako Kutxako Administrazio Kontseiluari eta Lehendakariari helaraziko zaie.

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urriak 17. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 13.

## Alkateen aukeraketa zuzenaren aurka



EH Bildu, Hamaikabat eta EAJ-PNV alderdiek bat egin zuten bozketan. Argazkia, artxibokoa.

Irailaren 30ean burutu zen osoko ohiko bilkurako eguneko gaien artean, alkateen aukeraketa zuzenerako Espainiako Gobernuak eginiko proposamenaren aurka, PSE-EE eta EH Bilduk aurkezturiko mozio bana zeuden. Lehenbizi, sozialisten txanda izan zen. Ricardo Crespo bozeramaileak hitza hartu zuenean ordea, azken orduko aldaketa bat egitea planteatu zuen. EH Bilduk aurkezturiko testua puntu zuzen bidez bozkatzeko bazen, berak PSE-EEren testua bertan behera utziko zuela iragarri zuen. EH Bilduk bere mozioa puntu zuzen bidez bozkatzeko arazorik ez zuela eta, azkenean, koalizioak aurkezturiko testua soilik onartu zen. PSE-EErena ez zen bozkatu.

Hauxe da EH Bilduren mozioak dioena. Puntu bakoitzari, segidan udal ordezkarien bozketen emaitza erantsi diogu:

■ 1-Udal honek, Madrilgo Gobernutik PP-k alkatea zuzenean zerrendarik bozkaturiko zerrendaburua izendatzeko burutu nahi duen Lege Aldaketaren aurkako jarrera adierazten du. Udal eta herritarren interesen ginetik, PPren alderdi interesei erantzuten dielako. Norabide horretan, udal honek, interes alderdikoiek sustaturiko Hauteskunde Legearen edozein alde-bakarreko aldaketa errefusatu du. Bozketaren emaitza: aho batez onartua.

■ 2-Udal honek, Euskal Herriko udal eta toki entitateen borondatea errespetatu eta gure egitura instituzionala inposaketa eta murrizketarik gabe, Euskal Herritarren beharren arabera antolatze eskubidea aldarrikatu nahi du.

Bozketaren emaitza: EH Bildu, Hamaikabat eta EAJ-PNV alde. PSE-EE aurka.

■ 3-Udal honek, bere jardueran herritarren partehartzea eta demokrazia zuzenerako tresnak martxan jartzeko konpromisoa hartzen du, udalaren osaketan ezezik udaleko erabaki garrantzitsuenen aurrean ere.

Bozketaren emaitza: aho batez onartua.

■ 4-Udal honek, ebazpen honen berri, herritarrei eta Madrilgo Gobernuari emateko erabakia hartzen du.

Bozketaren emaitza: aho batez onartua.

### Atalluko plan partziala

Hirigintza gaiak ere ahotan hartu zituzten udal ordezkariak hain zuzen, irailaren 30eko plenoan. Atalluko Plan Partzialaren 4. aldaketa behin betikoz onartu zuen udalbatzak, EH Bildu eta PSE-EEren aldeko bozkek. Hamaikabat eta EAJ-PNV abstenitu ziren.

### Eraikuntza eta erabilera ordenantzen aldaketa

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako eraikuntza eta erabilera ordenantzen aldaketa ere behin betikoz onartu zuten. Hasieraz onartu ostean, jendaurrean egon den epean, bi alegazio aurkeztu ziren. Bat partzialki aintzatzotzat hartzea eta bestea kontuan ez izatea proposatzen zuen gobernu taldeak. Esandakoa, gehiago osoz onartu zen proposamena, EH Bildu, PSE-EE eta Hamaikabaten aldeko bozkek. EAJ-PNV abstenitu zen.

## Taxi tarifak ez dira igoko 2015ean

Urte berria hastearrekin, bateko eta beste-ko prezioak garestituko direla entzuzera ohituak gaude. Baina ez da beti hala izaten. Berri on bat; 2015ean taxi zerbitzua baliatu behar duzuenok, urte honetan zehar ordaintzen duzuen diru kopuru bera xahutuko duzue urtariletik aurrera ere. Datorren urteko taxi tarifak bere horretan mantentzea, igoserarik ez aplikatzea aho batez onartu zuen udalbatzak, aurreko astean burutu zen osoko ohiko bilkuran.

Udalbatzak hartutako erabakia, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari helaraziko dio Udalak, "behin betiko onespina eman dezan". Baita herriko bi taxi titularrei, G. TAXI Gipuzkoako Taxien Elkargoari, AGITAXI, Foru Aldundiko Garraio Departamenduari eta Gasteizko Ekonomia eta Ogasun Departamenduko arduradunari.

### Taxi elkarten proposamena

2015ean taxi tarifak ez garestitzeko erabakia Buruntzaldetik dator. Usurbilgo Udala, Lasarte, Andoain, Urnieta eta Hernanikoa biltzen dituen batzorde bat bada. Bilgune horretan bertan, Gipuzkoa mailan dauden bi taxi elkarten tarifa proposamenak jaso eta aztertu zituzten irailan. Bi elkarteok, datorren urterako tarifak bere horretan uztea, aurtengo kopuruetan mantentzea proposatzen zuten. Bost udal ordezkarietaz bat egin zuten bi taxi elkargoen eskaerarekin. Eta orain udal bakoitzak osoko bilkuretaran eraman dituzte proposamenok. Esandakoa, Usurbilen behintzat, aho batez onartu du udalbatzak 2015erako taxi tarifetan igoserarik ez aplikatzea.

Honenbestez, honako hauek izango dira 2015ean aplikatuko diren taxi tarifak:

**Tarifa 1** (lanegunetan, 7:00-22:00 artean): Gutxienez, 5,12. Egindako kilometroak: 1,0885. Itxaro ordua: 20,8880.

**Tarifa 2** (egunero, 22:00-07:00 artean; larunbat, igande, jai egun eta abenduaren 24 eta 31n, 7:00-22:00 artean ere bai) Egindako kilometroak: 1,7436. Itxaro ordua: 32,8274. Gutxienez, 6,1028.



Buruntzaldetik dator tarifa ez garestitzeko erabakia.

# “Gizartea oro har nahiko sentsibilizatu dago, baina oraindik gauza gehiago egin daitezke”

“PAUSOKA EGUNA” ANTOLATU DUTE HERNANIN, BEHAR BEREZIAK DITUZTEN HAUREN ALDE

Larunbateko Pausoka Egunean parte hartuko duten familien artean da, Txokoalden bizi den Paradelako Palacios sendia. Familia honetako alaba Luciak Angelman izeneko sindromea du. Gaixotasun arraro bat. Errealitate hau gertutik ezagutzeko Luciaren amarekin, Lurdesekin hitz egin dugu.

**Zer ezaugarri ditu zure alabaren sindromeak?**

**Lurdes Palacios:** 15 kromosoman akats genetiko bat du. Kromosoma horren zati bat falta zaio. Gipuzkoan zazpi haur daude sindrome honekin, estatu mailan 200 bat. Gaixotasun arraro bat da. Ezaugarri komun batzuk dituzte denek; oreka gabezia, urarekiko lilura, hitzeko komunikazio falta. Sindrome hau duten haurrak, haur hiperaktiboak dira. Bi urte behar izan zituzten, alabari sindrome hau diagnostikatzeko. Gurutzetako ospitalean detektatu zioten. Alabaren egoera hobetuko zenaren esperantza genuen. Egia esan, gogorra izan zen albistearen berri izatea. Senarrak lehenago barneratu zuen. Niri gehiago kosta zitzaidan. Baina gerora, alternatibak bilatzen eta beste gurasoekin harremanetan jartzen hasi ginen, egoera ahal zen moduan eramateko. Muga asko ditu Luciak. Ibilera edota komunikazioa hobetzeko du. Aspacen dago eskolarizatu. Gurea, eguneroko borroka da. Baina pozik gara.

**Zeintzuk dira une honetan dituzuen behar nagusiak?**



Gaixotasun arraro bat du bere alabak. Antzeko egoeran direnen aldeko festa izango da larunbat honetarako Hernanin antolatu dutena.

Alabak komunikatu ahal izatea eta ibilera hobetzea. Ondo ibiltzen da, baina oreka arazoak ditu eta batzuetan estropozu egin eta erori egiten da. Eskilarak ezin ditu ondo jaitsi adibidez. Gutxienez alaba lasaiago egoten, zentratuagoa egoten, orekarik ez galtzen, komunikatu dadin ahalegintzen ari gara. 14 urte betetzera doa eta geroz eta gehiago pisatzen du, eta gu geroz eta helduagoak gara. Bere egoerara nahiko ondo egokitzen goaz halere.

**Ikusgarritasunean asko irabazi duzue, ezta?**

Pausoka Eguna horretarako da. Herriarrak sentsibilizatzeko, egoerok normalizatzeko, beste familiek ere ezagutu gaitzaten. Badira eta familiak, seme alabekin arazoren bat izan eta galduta sentitzen direnak. Gon-

da jabetzen askotaz, baina gauza gutxiarekin zoriontsua da. Haurrok benetan garrantzia duten gauza horietan zentratzen laguntzen dute. Harremana, maitasuna, garrantzitsuagoa da beste hainbat gauza baino.

**Errealitateon aurrean, gizarte moduan zer etxeko lan ditugu egiteke?**

Hernaniko udala adibidez oso inplikatu dago. Sentsibilizazio ekimenak bideratzen ari gara Aldundian, Osakidetzan, hezkuntzan... Egia da, krisi bat dago eta bitartekoak falta dira. Baina gu hor gaude borrokatzeko prest.

## LURDES PALACIOS

**“Gure seme alaben integrazioak eta etorkizunak kezkatzen gaitu, ahalik eta independentzia gradu altuena lortzea, gu ez gaudenerako”**

bidatuak zaudete Pausoka Eguneran.

**Haurron irribarre batek zer suposatzen du zuentzat?**

Zoriontsu ikusteak samintasun guttia estaltzen du batzuetan. Haurrok denbora asko egon dira ospitalean. Lucia ere jaio zenetik hilabete egon zen ospitalean. Beste hamabost egun Gurutzetan, urtea bete baino lehen. Gaizki pasatzen da. Eurak zoriontsu ikustea, hori da dugun kontsolamendua. Lucia adibidez ez

## Pausoka Eguna

**Urriak 11, larunbata, Hernanin**

10:00 Irekiera ekitaldia aurrekua- rekin, Gudarien Plazan.

10:00-20:30 Txozna eta taloak.

10:30 Kalejira txistulariekin.

11:00 Tailerren irekiera, txaranga eta batukadarekin.

11:30-13:00 Tailerrak, joko kooperatiboak, puzgarriak, tatuajeak eta ile trentzak egiteko tailerrak...

14:00 Paella jana herrikoia Atsegindegian.

16:30 Verdini dantza taldekoen emanaldia.

17:00 Porrotx eta Ane pirata.

19:00 Laurobaren kontzertua.

20:30 Festa amaiera.

Oharra: bazkarirako eta pailazo emanaldirako sarrerak salgai Atsegindegian.

Informazioa: [pausokaekarte.org](http://pausokaekarte.org)

Zuen  
publizitatea  
hemen

943 360 321  
[publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com)

Josue  
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Okindegia-Gozotegia

**LABE-GOXO**

**Errazkin S.L.**  
igeltseritza orokorra

943 24 01 76 eta  
649 435 470

[errazkinsl@euskalnet.net](mailto:errazkinsl@euskalnet.net)

Oztaran auzoa 33, URNIETA

# Parte hartze prozesua, bide onetik

**H**iria Antolatzeko Plan Orokorren harira antolaturiko parte hartze prozesua erdibidera heldu da. Amaitu dira auzokako bilerak, hasi berriak gaikako lan saioak. Prozesuak orain arte emandakoarekin gustura da Udala. Bilera oparoak izan direla dio Mertxe Aizpurua alkateak. Denok dugunez zer esana, herritarrak datozen lan saioetan parte hartzera animatzen ditu.



Mertxe Aizpurua lehen balorazio modukoa eskaini digu.

## Udalaren aurreikuspenak bete dira?

**Mertxe Aizpurua.** Egia esan, ez genekien zer emango zuen prozesu honen lehen faseak. Baina baikor gaude gu eta oso modu positiboan baloratzen dugu. Batek baino gehiagok pentsa dezake hau ez dela berezako gaia. Gu saiatu gara auzoz auzo egin ditugun bilera hauean adierazten, denek dugula zerbait esateko, iritzi denak direla kontuan hartzeak. Alde horretatik oso oparoak izan dira bilerak. Auzo bakoitzean bi saio egin ditugu. Buelta hori amaitu dugu eta orain arloz arlo hasiko gara. Toki batzuetan parte hartze handia izan da. Aginagan, saio oso biziak gainera. Besteetan parte hartzea txikiagoa izan da, baina era berean saio oso emankorrak izan dira eta edukiz beterikoak. Ideia politikak eta oso zentzudunak atera dira. Kezkak ere ondo etorri zaizkigu, geroari buruz herriak zer nahi duen jakiteko.

## Herritarrak nola ikusi dituzue, parte hartzeko gozoz?

Proposamenak egiteko gaitasunarekin eta jarrerarekin. Oso jarrera baikorrean aurkitu ditugu. Saio bakoitzetik oso pozik atera gara. Gaztelarazko bi saio izan dira baita, baina oso jende gutxi parte hartu du. Parte hartu zutenak ordea, benetan inplikatu ziren eta gauza asko

jaso genituen hortik. Horrek guztiak emango du bere emaitza. Parte hartzeari buruz, gazte eta haurrekin saioak egin dira, kontuan hartzeak. Batzuetan iruditzen zaigu haurrek egingo dituzten planteamenduak, errealitateari gehiegi lotu gabekoak izango direla. Baina ez da horrela, onerako harritu gaitu. Oso planteamendu onak, batzuk oso zentzudunak direnak egin dituzte. Ikastolan ere oso pozik geratu dira. Horrek ere nolabait jartzen ditu haur eta gazteak herriaren geroari begira, eta hori ariketa oso garrantzitsua da, herria beraiena sentitu dezaten eta beraiek ere sentitu dezaten zerbait esateko gai direla eta beren parte hartzea ere kontuan hartzen dela.

## Jaso dituzuen proposamenetik, zer nolako etorkizuneko Usurbil nahi dute herritarrek?

Orokorrean esan genezake, herri neurtu bat nahi dutela. Garapen neurtua izatea. Hazkuntzaren aldetik ere neurtua izatea. Baliabide naturalak mantentzearen aldeko nahia dago eta kontuz ibili behar den gai bat dela ikusi dugu. Etxebizitzaren aldetik beharretara mugatzea da, askotan atera den planteamendu bat. Ibaierikiko lotura edo lotu behar gara ere atera da.

## Ekarpen horiek zer bide izango dute?

Proposamen guztiok biltzen ari gara. Web gunean ere ikusgai daude zer ekarpen dauden. Horiek aztertuko dira teknikoki udaletxean dauden sail ezberdinetan. Behin hori aztertuta, berriro bueltatuko gara. Aurrerapen dokumenturako gure proposamena zein izango den aurkeztuko dugu eta orduan berriro ere eztabaidatzeko edo iritziak jasotzeko aukera egongo da.

## Herritarrak gaiak duen garrantziaz jabetu dira?

Denetara 188 lagunek parte hartu dute, kopuru handia da Usurbil baterako. Bai nabaritu dugula, adin tarte bati sortu diola interesa edo eragin diola deialdiak. Gazteek eta 65 urteko gorako herritarrek ez dute gehiegi parte hartu. Bi adin tarte hauek dugu nolabaiteko hutsune bat. Bai batzuk eta besteek zer esateko asko dute halere. Udalarari ere inporta zaio eurek esaten dutena. Gazteena, gerora beraiek izango dutelako orain diseinatzen ari garen herria. Eta helduek diotena baita ere, mugikortasun edo ekipamenduen gaietan beren iritzia kontuan hartzeko da. Beraiek ezagutzen dute beste askok baino hobeto herria, eta ikuspegi orokor hori ere haiek dute. Ia animatzen diren, denontzako dago eta tokia. Garrantzitsua da ere euren ahotsa.

## “Interesgarria da jakitea, entzutea, informatzea eta iritzia ematea”

Zer nola parte hartu dezakete herritarrek?

**Mertxe Aizpurua.** Udalak informazioa eskaini eta ematen du, informazio horren gain bakoitzak bere iritzia ematen du. Aparkalekuez, bidegorriaz, mugikortasunaz, komertzioa sustatzeaz, eguneroko bizimoduaz ari gara. Hori da gero bileretan talde lanean egiten dena. Ez da beharrezkoa ekarpenak egitea, bakoitzak emango du emango duena. Interesgarria da jakitea, entzutea, informatzea eta iritzia ematea. Eta iritzia edonork dauka edozer gauzari buruz eta batez ere herriari lotutako gauza bat baldin bada. Animatu parte hartzera, ez baita adituen planteamendu bat, ez da jakinduria berezia izan behar.

## Orain da momentua?

Orain da momentua, honek baldintzatuko baitu gure herriaren etorkizuna. Hemendik 20 urtera ikusiko dugun Usurbil hori, orain gauzatzen hasiko gara. Garrantzia du jakitea zer nolako Usurbil nahi dugun, eta horren haritik bitartekoak jartzea.

## Datozen hitzorduak

Gaikako bilerak egunotan:

**Urriak 9/16:**

Lurralde antolaketa.

**Urriak 13 astelehena:**

Jarduera ekonomikoak, komertzioa eta nekazaritza.

**Urriak 15 asteazkena:**

Ekipamenduak, zerbitzuak eta azpiegiturak.

Bileren hitzorduak: bilera guztiak, 19:00etan Potxoenean.

Deitzailea: Usurbilgo Udala.

## Informazio gehiago

usurbilrainadageroa.com

# Lekukoa Usurbilena da jada

DATORREN URTEKO KILOMETROAK USURBILÉN OSPATUKO DA, 2015EKO URRIAREN 4AN

Usurbilek eta Udarregi Ikastolak eskutan dute jada. Usurbilen esku jada, Kilometroak 15 antolatze-ko lekukoa. Igande eguerdian izan zen lekuko hartzea, Orion ospatu zuten ikastolen aldeko festa eguneko ekitaldi nagusiaren baitan. Udarregi Ikastolako lehendakari Xabier Alustizak, zuzendari Mariaje Imazek eta Usurbilgo Udaleko alkate Mertxe Aizpuruak hartu zuten, udalerrri honen eta hemengo ikastolaren izenean, urtebete barru herri honetan bertan ospatuko den Kilometroak antolatze-ko erronka.

Orioko ikastolako ordezkarien eskutik jaso zuten lekukoa, Artzeren poema bat errezitatu. Usurbildarrek esker onez eta ilusio handiz heldu zioten lekukoari, erronka berriari. “Eskerrik asko Orioko herriari. Usurbilentzat hain maitea den herri batek lekukoa ematea zerbait berezia dela esan behar dugu. Irrikitan gaudela horrelako jai zoragarri bat aurreneko aldiz gure herrian ospatzeko”, zioen Udarregi Ikastolako lehendakari Xabier Alustizak.

Berak adierazi bezala, orain bai, Usurbilen esku dago hurrengo Kilometroak jai prestatzea. Urriaren 5ean Orion ospatu zuten jaialdiko aldarria ahotan hartuta, orain Usurbilen txanda dela adierazi zuen Alustizak. “Abiatzera goaz, erria txikotat!”



Iragan igandean, Orion bertan jaso zuten Kilometroak lekukoa Usurbilgo alkateak eta Udarregi ikastolako ordezkariak.

zioen ikastolako lehendakariak, bertaratu zirenen txalo artean. Oriotarrek zorte ona adierazi zituzten usurbildarrei.

Lekuko hartze ekitaldia, leporaino betea zen Orioko ikastolako aretoan egin zen. Bertaraturikoen artean, bazen usurbildarrik; Kilometroak 15eko antolakuntza taldeko kideak, Udarregi Ikastolako Artezkaritza Kontseilukoak edota Usurbilgo Udaleko ordezkariak tartean.

## Usurbildar gehiago,

### Kirol Erronkan

Usurbil Kilometroak 15 antolatze-ko lekukoa hartzen ari zen artean, beste zenbait herri-

tar lehia bizian ari ziren Orioko jaialdian bertan, Kirol Erronka egitasmoan. Gipuzkoako hainbat ikastetxe kirol proba ezberdinen bueltan lehiari jartzen dituen Kilometroak-eko ekimenean parte hartu du aurten ere Udarregi Ikastolako DBHko ikasle talde batek, Sarai Lizaso edota Unai Lataillade irakasleen gidaritzapean. Eskubiko irudian dituzue, Usurbil ezin hobeto defendatu duten gazteak.

### Atzera kontua hasi da

Orioko Kilometroak eguna pasa eta lekukoa jaso ostean, orain bai, Usurbil eta Udarregi Ikastolaren txanda da. Udalerrri honek urtebete du aurretik, 2015eko urriaren 4an ospatuko

den festa egun handia prestatzeko. Atzera kontua hasi da. Kilometroak 15 antolatze-ko lanak martxan dira Usurbilen.

Hainbat lan talde osatu dira, baina laguntza behar da. Ez bakarrik Kilometroak egunerako, baita aurretik urtean zehar bideratuko diren ekimeneztarako ere. Une honetan, behar handienak arropa salmenta eta ekonomia batzordeetan daude. Taldeotan eta gainerakoetan parte hartze-ko deia luzatzen zaie usurbildarrei. Izen emate inprimakia, udarregi.com atarian eskura dezakezue. Argibide eta informazio gehiagorako, hona hemen Udarregi Ikastolako idazkaritzako telefono zenbakia: 943 36 12 16.

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

**JOSETXO IKATZETA**  
Iturgintza  
TEL: 943 36 20 26  
687 95 12 25

**JE JON ELORZA**  
IGELTSERITZA  
OROKORRA  
Obra eta erreformak  
**661 804 688**  
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



## Lehen bilerak, asteburu honetan



Orioko Kirol Erronkan DBHko usurbildar gazte hauek hartu zuten parte.

**K**ilometroak 15 ekimenari buruzko informazio gehiago nahi baduzue, ekimena bera kezagutu, helburuak, funtzionamendua, urteko ekimenak, sortu diren batzordeen zeregina... Adi, lehen bilera irekiak deitu baitituzte aste honetarako. Ostiral iluntzean Potxoenean, eta larunbat goizean, hau ere Potxoenean.

### Urriak 10, ostirala

19:00 Kilometroak 15 Usurbilen: bilera informatiboa Potxoenean.

### Urriak 11, larunbata

11:30 Kilometroak 15 Usurbilen: bilera informatiboa Potxoenean.

## Lekukoa herriari eskainiko zaio

**U**surbilen izenean emozio eta ilusio handiz jaso zuten aurreko igandean, Kilometroak 2015 antolatzeko lekukoa, Xabier Alustiza eta Mariaje Imaz, Udarregi Ikastolako lehendakari eta zuzendariak hurrenez hurren, eta Mertxe Aizpurua alkateak.

Lekukoa herriari eskainiko zaio orain, ekitaldi berezi baten bidez. Urriaren 17an izango da, ostiralez, arratsaldeko 19:30etan Mikel Laboa plazan. "Bertan, Ikastolak jasotako lekukoa herriari eskaini nahi zaio, izan ere, Udarregi Ikastola herritik herriarentzat eraikia izan baita, lehen, orain eta gero. Udarregi Ikastola hasieratik gaurdaino herriak sortua eta elikatua, eta herriarena izan da", Kilometroak 2015etik adierazi dutenez.

### Urriaren 17an, Mikel Laboa plazan

Urriaren 17an beraz, gerturatu 19:30etan Mikel Laboa plazara eta hasi Kilometroak 2015-erako girotzen.

Lehenengo 6 erosleentzako, garaje bikoitza banakako prezioan!

# ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

## 188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
Agerreazpi<sub>n</sub>

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

**VIVIENDAS LANIN S.L.**  
Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia E:contacto@viviendaslanin.com

# USURBILEN

**943 46 88 60**

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)

# “Kontxako Bandera oso berandu egokitu da eta oso denbora gutxi izan dugu aurten”



Trainerila Txapelketaren zortzigarren edizioa ospatuko da aurten.

Larunbat honetan jokatu da Aginagako Trainerila Txapelketa. Josu Ostolazak eman dizkigu proba honen xehetasunak.

**Prestaketa lanetan ibiliko zarete egunotan. Garaiz ibili beharko duzue, bereziki taldeen parte-hartzea ziurtatzeko, ezta?**

**Josu Ostolaza.** Denbora askorekin ezin duzu lanik hartu. Kontxako bandera gurea baino lehenxeago izaten da, eta arraunlariak ez daude zuri garaiz erantzuteko moduan. Aurten, gainera, Kontxako estropada oso berandu egokitu da, eta oso egun gutxi izan ditugu. Horrek arazo dezente eman dizkigu.

**Baina bestetik, izena hartzen ari da Aginagako Trainerila Txapelketa. Horrek erraztu egingo dituzkizue, ezta?**

Fama handia hartu du. Denek etorri nahi izaten dute baina aukeraketa bat egin behar izaten da. Zer bilatzen duzun izaten da kontua eta guk B taldeak hautatu ditugu, nibela berdina izateko. Hondarribia, San Pedro, Zarautz, Getaria, Orio eta Aginaga arituko dira

## JOSU OSTOLAZA

*“Trainerila txapelketak fama hartu du. Denek etorri nahi izaten dute baina aukeraketa bat egin behar izaten da”*

mutiletan, nibela berdina izateko. Eta nesketan, Orio, Hibaika, San Juan eta Zumaia.

**Hori seinale ona da, ezta? Denek etorri nahi izatea.**

Bai, bestetik, denboraldia amaituta, arraunlariak hasten dira jaten, eta gaizki sentitzen dira, kar, kar, kar. Kirol pixka bat egiteko aitzakia da, eta baita festa pixka bat egiteko ere.

**Arraun munduko jendearentzat festa da, beraz.**

Bai, hala da.

**Jende asko biltzen da erribera inguruan, eta giro ederra sortu ohi da. San Praixkutako puntako ekitaldia da akaso?**

Nik ez nuke esango hala denik. Herriak berak obligatzen dizu ekitaldi batzuk egitera, meza,

helduentzat hamaiketako, estropadak, presoan aldeko eguna... Eta horrek guztiak festak bi asteburuetan egitea behar-tzen zaitu.

**Festa giroan ospatu arren, denek nahiko dute Bandera irabazi.**

Inork ez du galdu nahi hemen, ezta kaniketan ere.

**Taldeen arteko pikeak ere pizgarri izango dira.**

Hori Aginagako festetatik aparte datorren zerbait da. Klub bakoitzak dauka bere debildadea. Oriok Zarautzekin duena adibidez, edo Zarautzek Oriorekin duena. Gazteak izan edo helduak izan, bestearen aurretik geratzea da kuestioa. Bandera eramaten baduzu ba oso ondo, baina kontua da beste horren aurretik geratzea.

**Baita gazteen artean ere?**

Bai. Gazteak helduari nahi dio irabazi, baina gazte arraunlarien artean ere bada pikea.

## Trainerila Txapelketa

- Urriak 11 larunbata.
- 16:00etan.
- Aginagako erriberan.

## Koadrila osatua du Aginagak

“Baja batzuk izan ditugu”, haxe esan digu Josu Ostolazak. “Puertas anaiak ez dira etorriko, ezkontza bat dutelako. Bestela, lehen ibilitakoak arituko gara.” Oraingoz, eta azken orduan ez bada aldaketarik, hauek izango dira Aginagarekin aterako direnak: Josu Ostolaza, Hodei Alkorta, Iñaki Errasti, Ander Agirre, Aritz Hernandez eta Erik Aranburu. Patroi lanetan, Markel Eizagirre.

## Nesketan, kontxako onenak

Nesketan, lau izango dira lehian arituko direnak; Orio, Hibaika, San Juan eta Zumaia. Kontxako Banderako lehen lau sailkatuak. Mutilen artean, sei izango dira abiatuko diren taldeak: San Pedro, Hondarribia, Zarautz, Getaria, Orio eta Aginaga.

## Orion ari da arraunean, bigarren taldean

**N O A U A !**  
Arraunlaria ere bazara. Orion egin duzu denboraldia baina Aginagako txapelketan,



**Aginagarekin aterako zara, ezta?**

**Josu Ostolaza.** Hori da. Orion ibiltzen naiz, bigarren taldean. Hau laugarren urtea dut.

**Zer moduz joan zaizue?**

Negua beti iguala izaten da denentzat, lehen zein bigarren ekipokontzat. Udara ordea motza egin zaigu. 12 estropada bakarrik izan ditugu eta abuztuaren 24an amaitu genuen denboraldia. Gustura aritu gara. Lanak eta arraun kontuek kointziditzen ez duten bitartean, datorren urtean ere jarraituko dugu.

## San Praixku jaietako azken txanpa

### Urriak 10, ostirala

#### Umeen Eguna

10:00 Umeen jolasak frontoian.

13:00 Haurrentzako bazkari goxo-goxoa indarberritzeko.

17:00 Puzgarriak plazan.

Ondoren, primerako txokolatada eta buruhandi bizi-bizikiak. Hasi korrika!

21:00 Bertso afari musikatua Eliza Zaharrean. Bertsolariak: Jon Martin, Arkaitz Oiartzabal "Xamoa", Alaia Martin eta Mantxi.

Gitarrak: Eneko Sierra eta Ixak Arruti.

Biolina: Gari Otamendi.

Gai jartzailea: Haritz Casabal.

Ondoren, dantzaldia Eliza Zaharrean

Itzartu taldearekin.

### Urriak 11, larunbata

#### Oilasko Biltzaileen Eguna

06:00 Oilasko biltzaileen irteera bazterrak alaitzera. Zahar, heldu eta gazte ondo gosalduta eta txukun-txukun.

Eguerdian, joaldunekin batera Mapildik plazara abiatuko dira oilasko biltzaileak.



Larunbat arratsaldean, sardina eta sagardo banaketa herriko plazan.

16:00 II. Emakumezkoen trainerila txapelketa eta VIII. Gizonezkoen trainerila txapelketa.

19:00 Sardina eta sagardo banaketa herriko plazan.

Bitartean, XXXII. Toka Txapelketa herrikoia.

00:30 ABIBA Diskofesta frontoian.

04:30 Aros DJ Eliza Zaharrean.

Berehala eguna argitu duela? Guri Bost!

Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.

### Bertso afaria Eliza Zaharrean

#### Urriak 10 ostirala

21:00 Bertso afari musikatua Eliza Zaharrean. Bertsolariak: Jon Martin, Arkaitz Oiartzabal "Xamoa", Alaia Martin eta Mantxi.

Gitarrak: Eneko Sierra eta Ixak Arruti.

Biolina: Gari Otamendi.

Gai jartzailea: Haritz Casabal.

Ondoren, dantzaldia Eliza Zaharrean Itzartu taldearekin.

Txartelak salgai: Aitzagan, Aginagako Arrate eta Sekañan.

Prezioa: 15 euro.



Jon Martin, Xamoa, Alaia Martin eta Mantxi arikuko dira kantuan.

# GARAI HURA GARA



Andoni Egaña  
Xabier Lizaso

BERTSO MUSIKATUA

noaua



Urriak 19, igandea  
Non: Sutegiko auditorioan  
Noiz: 19:00etan

Sarrera: 10€ (Aldez aurretik 8€ Bordatxo tabernan eta Noaua!n). Noaua!ko bazkideek, 6€tan Noaua!n aldez aurretik.

# Giro onean igaro zen San Praixku jaietako lehen asteburua



Larunbat eguerdian, giro ederrean ospatu zuten San Praixku eguna.



Mus txapelketa Eliza Zaharrean jokatu zen.



Herriko kiroletan jo eta su aritu ziren aginagarrak.



Lehian broma gutxi izaten da, gutxiago Aginagan.



Gorritren animaliekin arratsalde ederra pasa zuten gaztetxoek.



Patata tortilla eta ondorengo pintxo potea frontoian egin zen.



## Usurbil Gure Esku Dago

# Lanerako garaia da

**B**ada hilabete inguru ikasturte berria hasi zela, eta Gure Esku Dago ere hasi du berea, propioa. Egin genuen giza kate erraldoia, eta orain lanean jarraitzea tokatzen da. Usurbilgo GED ere martxan da, lan egiteko gogotsu, batez ere.

Joan den irailaren 27an 73 herritako 175 lagun bildu ginen Gasteizen, aurrera begira dinamikak zein bide hartu behar duen adosteko. Hemeretzi ebazpen onartu ziren bertan, esaterako: GEDk erabakitze eskubideaz mintzo denean, estatus politikoaren inguruko erabakitze eskubidea izango duela ardatz; norberak izan dezakeen nazio edo identitate sentimendutik harago, erabakitze eskubidearen oinarria demokratikoa dela soil soilik, eta abar (ebazpen guztiak, bozka kopuruekin lagunduta, GED-ren webgunean dago oso osorik). Dinamikak, hemendik aurrera, hiru fasetan banatutako norabideari ekingo diola ere adostu genuen Gasteizen: lehenengo, aldarrikapena ehundu, hautestontzia osatuko genuke; bigarren fasean, edukiak adosteko garaia izango da, zer galdetu nahi dugun eta noiz galdetuko dugun; gauzatzea, erabakitzea



Urriaren amaieran batzar bat deitzeko asmoa du Gure Esku Dago lan taldeak. Argazkia: Jon Markel.

legoke azken fasean.

Urte berezia izango da datorren hau Usurbilentzat, eta hori hala izan arren, ezin dugu orain artekoa ezerezean utzi. Beharrezkoa da lanean jarraitzea, erabakitze eskubidea lehen planora ekartzea, eztabaida herrira ateratzea. Angel Oiarbidek esan zuen behin, eta ez ahaztea komeni da: “Gai garrantzitsuegia da alderdi politikoen esku bakarrik uzteko”. Herritarren garaia da. Artur Mas beraren hitzak ere ekarri nahi genituzke hona:

“Galdeketa egitea ez da independentzia aldarrikatzea, herritarren iritzia ezagutzea da”. Hori besterik ez dugu eskatzen: utz diezagutela gure iritzia ematen, utz diezagutela gure etorkizuna gure eskuetan hartzen.

Ekitaldiak egiten jarraituko dugun arren, ez dugu gure jarduna urteroko ekitaldi batetara soilik mugatu nahi; herri mailan landu nahi dugu gaia. Garrantzitsua da kontzientzia hartzea, gaiaz busti eta ingurukoak ere zipriztin-

tzea. Hori dela eta, esaterako, urriaren amaiera edo azaroaren hasiera aldera batzar irekia egin nahi genuke herrian. Ez hori bakarrik: inork aparteko informazioa jaso nahiko badu, usurbilgureeskudago@gmail.com helbidera idatzi, eta ahal bezain ongien erantzuten saiatuko gara. Baina guri gehien gustatuko litzazukeena parte hartzera animatzea da, eta nahi izanez gero, gure bilerak beti dira irekiak (ostiralero egin ohi ditugu, 18:00ak aldera, Po-txoenean). Animatu zaitetz!

**txirriStra**  
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**www.noaua.com**  
USURBILGO ATARIA

## Elkarrekin bizitzeko modu ugari daude



LH 5, 6 eta DBHko ikasleen gurasoei zuzendutako tailerra da, Hitz Ahok antolatutakoa.

**G**aur egungo familien ezaugarri bat aniztasuna da (nuklearra, banandua, dibortziatua, gurasobakarrakoa, beregituratuak ...). Eta gainera, ezbehar batek familia baten egoera alda dezake (banaketa, amonaren gaixotasuna, heriotza...). Egoera eta aldaketa hauen aurrean, maiz zalantzak sortu ohi dira seme-alabak hezteko garaian. Ikastaro honen bitartez, hainbat argibide praktikiko jasoko dituzte izena ematen duten gurasoek.

Familia anitzak ikastaroaren bitartez, galdera hauei erantzun bat ematen saiatuko da Joxe Amiama:

Edozein familia mota baliagarria al da gure seme-alabei laguntzeko?

Zeintzuk dira gako nagusiak? Eta nola landu?

Zer da galera eta dolua? Nola hasi bideratzen gure seme-alabengan?

■ Noiz: asteazkenetan, lau saio guztira.

■ Urriak 29; Azaroak 5; 12; eta 19.

■ Ordua: 17.00-18.30.

■ Non: Udarregi ikastolako eraikin gorrian.

■ Norentzat: LH5-6 eta DBHko ikasleen familientzat.

■ Izena emateko epea: Urriak 13tik 24ra.

■ Kontu korrante zenbakia: 3035 0140331400024098.

■ Kuota: 15 euro.

### UDARREGI IKASTOLAN

***“Lau saio izango dira, lehena urriaren 29an. Izena eman behar da alde aurretik eta horretarako epea urriaren 13an zabalduko da”***

■ Posta elektronikoa: hitzaho@udarregi.com

■ Izena emateko orduan seme-alaben izen abizenak eta ikastolan dauden maila zehaztu.

■ Hizlaria: Joxe Amiama, psikopedagogoa.

### Arropa eta oinetako bilketa, Afrikara bidaltzeko gero

SOS Afrikaren kanpainarekin bat egin du Udarregi ikastolak. Hala irakurri dugu udarregi.com web orrian. Elkartasuna eta justizia bultzatzen duen gobernu kanpoko erakundea da SOS Afrika, eta hara arropa eta oinetakoak bidaltzeko ekimena jarri dute martxan.

“Udarregi Ikastolak elkartasunezko ekintza hau bere gain hartu duenez, zuek ere kanpaina honetan parte har dezazuen eskatzen dizue”, web orrian aditzera eman dutenez.

### Urriaren 14a bitarte

Bilketa Udarregi ikastolako erdiko aretoan egingo da, urriaren 14a bitarte.

### Donostiako Zinemaldian

Donostia Zinemaldiaren 62. edizioak haurrentzako bereziki pentsaturiko film batzuen hautaketa aurkeztu du, guztiak euskarara bikoiztuak.

Belodromoan haurrentzako saioak ere izan dira goizero, ikastolekin eta ikastetxeekin hitzartutako programaren bitartez. Aurten, Friends: Mononokeshima no Naki / Friends: Naki on the Monster Island (Friends - Abentura munstroen uhartean) filma eman dute, euskarara eta gaztelaniara bikoiztua.

Irailak 26an Donostiako Zinemaldira “Friends- Abentura munstroen uhartean” euskeraz ikustera joan ginen Udarregi ikastolako 3.,4.,5., eta 6.mailako ikasleak.

Asko gustatu zitzaigun pelikula. Hasiarian aspergarria bazirudien arren, istorioan sartu ahala, abentura mordoa bitzitu genituen protagonistarekin. Denetik zuen pelikulak; umore eta pasarte dibertigarriak, abenturak eta baita une hunkigarriak ere.

Azken urteetan ikusi dugun filmarik onena izan da, dudarik gabe!

### Udarregi ikastola

### Eskubaloia Oiardon

#### Urriak 11, larunbata

09:30 Infantil neskek, lagunarteko triangelularra: Udarregi B-Ereintza-Pulpo

12:30 Infantil neskek, lagunartekoa: Udarregi A-Pulpo

15:45 Senior mutilak, 1. Territoriala: Usurbil K.E.-Gabaz Elgoibar

17:15 Senior neskek: Usurbil KE-Aiala ZKE

19:15 Senior mutilak, 1. Nazionala: Ucin

Aluminio Usurbil-Pulpo K.E.

#### Urriak 12, igandea

11:30 Jubenil mutilak: Usurbil K.E.-Beristain Banaketak Elgoibar

### Mikel Alzaga, goleatzaile onenen artean

24 golekin, eskubaloiko 1. nazional mailako hirugarren goleatzaile onena dugu Usurbil Kirol Elkarteko jokalaria. Kontuan izan, 1. nazional mailan 84 talde eta 871 goleatzaile daudela. Onenak, 28 gol ditu. Asteburu honetan etxean jokatuko dute usurbildarrek, Zumaiako Pulpo K.E. txapeldunordeen aurka; larunbat arratsaldeko 19:15etan hasita, Oiardo Kiroldegian.

# Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna

**A**rropa eta oinetako erosoak jantzi eta igande honetan, Urriaren 12an, denok bailarako txokoak hobeto ezagutzera. Buruntzaldeko Ibilbideen 7. Eguna ospatuko baita, 9:00-14:00 artean. Andoain, Lasarte, Urnieta eta Usurbil lotuko dituzten bost ibilbide ditugu aukeran, eskualdeko "landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera dugu. Bidezidor eta bideak ditugu (bost ibilbide daude aukeran), landako paisaiatik barrena paseoez gozatzeko, belardiak eta basoak zeharkatuz eta baserri, baseliza, karobi eta, natura nahiz kultura aldetik, interesgarriak diren beste leku batzuetara hurbilduz".


Ez dago galbiderik. "Herrietan ibilbide-zati bakoitzaren inguruko trazatuak, profilak eta distantziak erakusten dituzten panelak daude, bideetan, berriz, norabideak eta distantziak markatzen dituzten geziak eta zuinak. Seinale horiek guztiak udalerrri bakoitzaren identifikazio-koloreak aintzat hartuz ipinita daude. Hala, seinale bat bidean ikusten dugunean zein ibilbidetan gauden jakingo dugu", antolatzaileen esanetan. Paneletako bat, Mikel Laboa plaza ondoan duzue.

Hauek dira udalerrri bakoitzaren koloreak:

- Andoain: urdina.
- Lasarte: urre zaharra.
- Urnieta: berdea.
- Usurbil: laranja.

## Parte hartzeko modua

Antolakuntzak aipatu lau udalerrietan, Andoain, Lasarte, Urnieta eta Usurbilen (Aginagako Mapilen eta Santueneko zubi ondoan) jarriko dituen kontrol guneetan txartel bat



Igande honetan, bost irteera ezberdinez gozatzeko aukera izango da.

jasoko du partaideak, "abiatzen den lekuko ziguiluekin; partaide batek bi ibilbide eginez gero, egunaren oroigarria den buff bat jasoko du opari. Salbuespena Andoain-Usurbil ibilbidea da, bietako edozein norabidean eginez gero buff-a lortuko baitu".

## Bost ibilbide aukeran

**Eguna:** urriak 12, igandea.

**Orduetgia:** 9:00-14:00.

**Ibilbideak:**

- Andoain-Lasarte: urdina eta urre zaharra; 7,9 kilometro; oinez egitekoa, mendiko oinetakoak beharrezkoak.
- Andoain-Urnieta: urdina eta berdea; 4,8 kilometro; oinez edo bizikletaz egitekoa, kirol oinetakoak beharrezkoak.
- Andoain-Usurbil: urdina eta laranja; 14,9 kilometro; oinez egitekoa, mendiko oinetakoak beharrezkoak.
- Lasarte-Urnieta: urre zaharra eta berdea; 3,9 kilometro; oinez edo bizikletaz egitekoa, kirol oinetakoak beharrezkoak.
- Lasarte-Usurbil-Aginaga (Santuenetik barrena, Mapileraino): urre zaharra eta laranja; 9 kilometro;

oinez edo bizikletaz egitekoa, kirol oinetakoak beharrezkoak.

## Kontrolak eta anoa

Herri bakoitzean kontrol une bat egongo da (Usurbilen bi), argibideak emateko eta mokaduak eta edatekoak banatzeko:

- Usurbilen: Santueneko auzoan, Zorrotzeko zubiaren parean eta Aginagan, Mapil inguruan.
- Andoainen: udaletxe azpian.
- Lasarte-Orian: San Pedro elizaren ondoko plazan.
- Urnietan: udaletxe azpian.

## Itzulerarako bus zerbitzua

Zerbitzu hau baliatzeko, "derrigor, hasieran jasotako txartela ziguilua aurkeztu beharko da". Bus zerbitzuaren orduetgi eta geltokiak segidan:

- Aginaga, Ezpaldiko gasolindegia: 12:00, 13:00, 14:00.
- Usurbil, San Inazio errotonda: 12:07, 13:07, 14:07.
- Lasarte-Oria, Dorretzeko biribilgunea: 12:15, 13:15, 14:15.
- Andoain, Goiko plazaren atzealdean: 12:30, 13:30, 14:30.
- Urnieta, Kiosko geltokian: 12:40, 13:40, 14:40 (zerbitzu amaiera).

## Eskubaloiko errifa zozketa

4.108 izan da zenbaki saritua. Roman Manterola herritarrentzat saria; bi laguntzako otordua irabazi du usurbildarrak, Patri jatetxean. Usurbil Kirol Elkarteak, zozketa honetan parte hartzen duten jatetxe eta errifa erosleak eskertu nahi ditu.



Patrin bi laguntzako otordua irabazi du Roman Manterolak.

## Futbola Haranen

**Urriak 11, larunbata**

**10:00 Alebin mutilak:**

Udarregi 5A-Urnieta 5C

**10:00 Alebin mutilak:**

Udarregi 5B-Landaberri B

**16:30 Jubenilak:**

Usurbil FT-Beasain S.D.

## Eskubaloia

Igande honetan, euskal selekzioaren entrenamenduetan parte hartzeko gonbita jaso dute Usurbil KEko jokariok.

09:00 Haur nesken euskal selekzioaren entrenamendu saioa, Ermuan: Enara Egizabal.

15:30 Emakume juvenilen selekzioaren entrenamendu saioa, Urdanetan: Ana Encina Alvarez, Leire Furundarena Padrones.

17:30 Kadete nesken euskal selekzioaren entrenamendu saioa, Hondarribin: Estitxu Berasategi Eizagirre, Ane Irazabal Esnaola.

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. © 943 362 725

**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64

URDAINTZI@EUSKALNET.NET

**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

**TXAPELDUN**  
TABERNA

razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...

Muna lurra 2, 943 11 82 53

**ARRANDEGIA**  
**PELLO**

PUNTA PAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL





tu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titularekin. 619511789 / 943 760418.

Erizain laguntzaile bat. Sukalde eta masajeko titulazioarekin. Pertsona helduak, gaixoak edo umeak zaintzeko. Esperientzia frogagarriarekin. 943 36 50 79.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldako laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketara edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarako egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altxariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, haurrei ingeleseko klase partikularrak eman edo etxerako-lanetan laguntzeko prest. 670461180. E-maila: oli\_ireth@hotmail.com

Klase partikularrak ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zaindiko nitzuke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsoneri erizain

zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsalde. Irakaskuntza gradua bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zaindiko nitzuke goiz zein arratsalde. Irakaskuntzan diplomaturia. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketara. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketara eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketara lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduradu-

na, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2.mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila gutxieta, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660

778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

#### LANPOSTUAK

##### Lan eskaintzak

Xarma tabernaroko sukaldari bat behar da asteburuetarako. Tel. 943 368 771.

#### BESTELAKOAK

Denborarik ez baduzu zure askakota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. As-teburutan. Tel. 688888176. Pablo.

Trona bat JANE markakoa salgai. Berri berria. Urdina marrazkiekin. Tel. 666 373 665.

Hemengo intxaurra saltzen da oso prezio onean. 300 kilo gutxira. 687 348 223.

Mutil gazte bat prest dago, rotatorearekin lurrin biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Zaldi-terapia egiteko, egokitutako lokal bat, landa eremu bat edo lur-sail bat alokatu nahiko genuke proiektu bat aurrera ateratzeko. Igor Aizpurua. 606525707.

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Josteko makinak salgai. Prezio onean. Tel. 943 36 32 01.

Belar fardoak salgai. 943 36 20 72.

Valentziako mandarina ekologikoak salgai. euro 1 kilo. Bitartekariak gabe. Tel. 637 929 093.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Ezkartzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 djlarra@usurbil.com

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunear. Doan hartu daitezke. Astelehene ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak Urriak 09 - Urriak 19

**Osteguna 09** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Ostirala 10** RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

**Larunbata 11** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Igandea 12** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Astelehena 13** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Asteartea 14** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Asteazkena 15** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Osteguna 16** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Ostirala 17** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 18** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Igandea 19** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30etara

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ** AIZPURU ODRIOZOLA, KARMELE. Latxumbe berri, 11. Hernani. 943552087 22:00 - 09:00

# Agenda urria

## 10 ostirala

- **San Praixku jaiak Aginagan.** Ikus 12 or.
- **Kilometroak 15: bilera informatiboa.** 19:00etan Potxoenean.

## 11 larunbata

- **San Praixku jaiak Aginagan.** Ikus 12 or.
- **Kilometroak 15: bilera informatiboa.** 11:30ean Potxoenean.
- **Zubietako IV. Mendi Duatloia.** 16:00etan. 15:00etan gaztetxoak.

## 12 igandea

- **Buruntzaldeko Ibilbideen 7. Eguna.** 9:00-12:00.
- **Organo kontzertua Salvatore parrorokian.** 20:00etan, doan.

## Larunbat honetan, Zubietako Mendi Duatloia

Iaz azaroan izan arren, aurten berriz ere urrian ospatuko da Zubietako Mendi Duatloia laugarren edizioa. Larunbat honetan bertan, urriaren 11n, arratsaldeko 16:00etan hasita. Halere, ordubete lehenago, 15:00etatik aurrera, 12-15 urte arteko gaztetxoentzako probak ospatuko dira. Helduen txanda gero. Zubietako inguruak zeharkatuko dituen ibilbidea osatu beharko dute:

- 1. sektorea: 4,53 km, mendi lasterketa.
- 2. sektorea: 16,94 km, mendi bizikletaz.
- 3. sektorea: 2,17 km, mendi lasterketa.

### Izen ematea, 20 euro

Zubietako Herri Batzarrak antolaturiko kirol probarako izen ematea, aurrez 15 eurotan. Egunean bertan, 20 euroren



**Mendi duatloia 16:00etan hasiko da. 15-18 urtekoen arteko lasterketa, lehenago, 15:00etan.**

truke. Zubietako kirol proba, Euskal Herriko Mendi Duatloi zirkuituaren baitan dago. Beste 12 probekin batera. Informazio gehiago: [mendiduatloia.com](http://mendiduatloia.com)

### Afari beganoa ostegunean Usurbilgo gaztetxean

Ostegun honetan, urriaren 9an, 20:30etatik aurrera Usurbilgo gaztetxean. Ohi bezala, bozondatearen truke. Afalostean Toni magoaren saioa. Gaztetxetik aditzera eman dutenez, "ekimen hau ere hemendik aurrera gaztetxea eraisteko arriskuan dagoela eta, egingo diren ekimen zaparradaren barneko zikloan sartuko da. Gaztetxea bizirik!"

### Igande honetan organo kontzertua

Rolf Müller alemaniar organo jolearen emanaldia iluntzeko 20:00etan hasiko da, Salvatore Parrokian. Organoaren Lagunak taldeak antolatuko du. Hau izango da kontzertuko programa: Johann Sebastian Bach (1685-1750), Felix Mendelssohn (1809-1847), Felix Alexandre Guillemant eta Rolf Müller (\*1972) musikarien konposaketak.

### Datozenak

#### ELA gaixotasunaren inguruko kanpainarekin bat egingo du Udalak

"Usurbilgo Udaleko zinegotziok kanpainarekin bat egin eta baldekada bat ur hotzez bustiko gara. Herritarrek ere gonbidatzen ditugu gurekin batera busti nahi badute bustitzera", adierazi dute.

Hitzordua, **urriaren 14an asteartea, arratsaldeko 18:30ean udaletxe aurreko plazan.** Udal ordezkariak busti bakarrik ez noski, garrantzitsua dena, ekarpen ekonomikoa egingo dute. 500 euroko ekarpena Usurbilgo Udalaren izenean, eta hogeina euro zinegotzi bakoitzak.

Udaletxe aurrean egingo da ekitaldia, eta dirua biltzeko kutxa bat jarriko da. Jasotako laguntza, ELA gaixotasuna dutenen alde, ikerketara bideratuko da. Ekarpenean honako kontu zenbakian egin behar dira, AdELA Eskal Herria, Laboral Kutxa: ES74 3035 0060 44 0600080648. Informazio gehiago: [adelauskalherria.com](http://adelauskalherria.com)

#### "Garai hura gara", Andoni Egañaren ikuskizun berria Sutegin

"Garai hura gara" ikuskizunean XVIII-XIX. mendeetako kultur-joeren berri emango dute Andoni Egaña bertsolariak eta Xabier Lizaso pianojoleak. Fernando Amezketarraren bertsoak eta Peñaforida kondearen doinuak, besteak beste. **Urriaren 19an igandearrekin, Sutegin, 19:00etan hasita.**

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

## ALKORTA AUTOZERBITZUA

**Baserriko haragia**

•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak

Behoko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

3.  
FASEA

[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)



**herri**tarrekin  
martxan en marcha



 *Gipuzkoa*  
BERRIA



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

 *Gipuzkoa*  
BERRIA

Informazio gehiago:  
[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)

## GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZU BERRIA EZAGUTU NAHI?

4.000 herritar baino gehiagok egindako ekarpenak kontuan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak autobus zerbitzu berria jarriko du martxan 2015ean. Zerbitzu berriak ezagutzeko, zatoz zure eskualdean egingo den bilerara:

**Urriak 22, Hernanin,  
Biteri kultur etxean, 18:30ean**

# URRIAN



Hurbilago txartelarekin  
**10 eta**  
**20€ko**  
 erosketa  
 baleak!

Hurbilagoko txartelarekin ordaindutakoan, datafonoko tikean azalduko zaio sarituari bere erosketa-saria. 10 edo 20 euroko saria, Hurbilagoko edozein establezimendutan erabili ahal izango da 2014ko azaroaren 30era arte.
